

379/2024 EBAZPENA, MAIATZAREN 22KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, FAK. ESP. FAMILIAKO MEDIKUA - LMT LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN BIDEZ ETA ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA EGITEN DUENA, ASISTENTZIA SANITARIOKO ZUZENDARITZAN, INTEGRAZIO SOZIOSANITARIO - OSASUN MENTAL ETA HAURREN ZERBITZUAN, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN.

LANPOSTUA: FAK. ESP. FAMILIA-MEDIKUA - LMT.

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia, Asistenzia Sanitarioko Zuzendaritza, Integrazio Soziosanitario, Osasun Mental eta Haurren Zerbitzua.

Lanaldi zatitua (Vitoria-Gasteiz).

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: 2. HE; derrigortasun-data: 2023/04/13.

BALDINTZAK: (Agiri bidez egiaztatu beharko dira, CV aplikazioan jasota egon ezean).

Aldi baterako barne-sustapena eskatzen dutenentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratuko langile finkoa izatea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikia.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den titulazio-maila bereko edo txikiagoko beste kategoria batekoa izatea.
- Lanbide Heziketako karrerako funtzionario, estatutupeko langile finko edo lan-kontratu finkorik ez izatea F. Esp. Familia-medikua – LMT kategorian, izendapen edo kontratu horrekin zerikusia duen administrazio-egoera edozein dela ere.
- Zuzendaritza Nagusira langile finko gisa atxikita egotea, Zuzendaritza Nagusiko langileen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde batera atxikita egotea langile finko gisa, zerbitzu-erakundeen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean badago, egoera horretan urtebete baino gehiago jarraian egotea.
- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritako titulazioa eta deitutako azken EPEko kategoriaren deialdiko oinarrietan eskatzen diren gainerako titulazio-eskakizunak izatea.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratuko langile finkoa izatea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikia, edo karrerako funtzionarioa edo estatutario finkoa Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuetan, F. Esp. Familia-medikua - LMT kategorian.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lanpostua jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzuli delako atxikita dagoen zerbitzu-erakundea ez den beste batean lanpostuak betetzeko eskaera egitea.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA (agiri bidez egiaztatu beharko dira, CV aplikazioan jasota ez badaude):

Aldi baterako barne-sustapena eskatzen dutenentzat:

- EPEko oposizio-fasea (Gehienez 100 puntu)
- Lanbide-esperientzia (Gehienez 80 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Lanbide-esperientzia, kategoria honetako azken lekualdatze-lehiaketan. (Gehienez 50 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Euskararen ezagutza

Euskararen ezagutzaren balorazioari dagokion puntuazioa Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri egingo da.

ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Interesdunek Osakidetzako Erakunde Zentraleko Giza Baliabideen Zuzendaritzari (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz) zuzendu beharko diote eskabidea, datu pertsonal guztiekin eta dokumentatutako *Curriculum Vitae* arekin (aplikazio informatikoan baliozkotuta dutenek izan ezik) eta eskatutako ezagutza espezifikoa egiaztatzeko egokitzen duten dokumentazioarekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, deialdia web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN HURRENKERA

Lanpostua betetzeko lehentasun-ordena honako hau izango da:

1. – Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabiliz lanpostua ezin bada bete, hurrengo zenbakian aurreikusitakora joko da.

2. – Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hori erabiliz lanpostua ezin bada bete, hurrengo paragrafoan aurreikusitakora joko da.
3. – Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

BALORAZIO BATZORDEA:

Balorazio-batzorde bat eratuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, Giza Baliabideak Hautatzeko eta Hornitzeko zuzendariordea edo hark eskuordetutako pertsona buru dela, eta Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko zuzendariordea, Lehen Mailako Arretako Unitate Korporatiboko burua eta Hornidurako Zerbitzu Korporatiboko burua (azken horrek idazkari gisa jardungo du) kide dituela.

HAUTAKETA-PROZEDURA:

Balorazio Batzordeak interesdunek garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du. Aurrekoa ikusita, dagokion izendapena formalizatzeko proposamena egingo da. Balorazio Batzordeak plaza bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 22a

 **Osakidetza**

Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

**GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA**